

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 1995eko abenduak 21 • 89.zka. •



Sretan Bozió!

*Gabon
eta urteberri on*

Laguna



*Meca-n zure zerbitzura gaude,
gure nahia, zuen gogoia betetzea delako.
Meca S.A. eta bere taldearen partez, Eguberri On eta
1996a urte oparoa izan dadila.*

Zorionak!



RENAULT





Zer duzu esateko Jugoslavia ohirako sinatu den bake akordioaz?

Rosa Mari Ayuso
(Etxekoandrea)

Bakea beti gauza ona da. Nik bakeak betiko iraun diezaien eskatuko nuke.



Jose Carrasco
(Langabetua)

Bakea sinatzea oso ondo dago, baina zeozer iluna dagoela uste dut guzti horren atzean. Dagoeneko asko sufritu dute eta nik onena opa diet.




Margarita Zubizarreta
(Langilea)

Bakea egotea ondo dago. Min asko egin duen gerra izan da eta gogorra gainera. Zoriontasuna opa diet gerrak harrapatu dituen guztiei.



Fernando Oñinaga
(Langilea)

Nik uste dut bakea lehenago sinatu behar zela, gerra ekiditu zitekeela, baina interesik ez zegoenez, horregatik ez da lehenago ekiditu.



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria



ESKUTITZAK

*Aretxagazetak, Gabon zomontsuak eta
lurte berri! Ou bat opa plizue.*

Martin Garaik lumaz idatzia

Oharra: Hurrengo Aretxagazeta, 90. zenbakia hain zuzen ere, urtarrilaren 11an kaleratuko da. Ordurarte, gabon on onak pasa eta urteberria ondo hasi.

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Iosu Urkia. **Erredakzio-kontseilua:** Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Arantzazu Abasolo, Xabin Arriola. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Loramendi K.E., Udala, Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378/94
Aretxagazeta ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin. Azaleko argazkia: Joxebi Ramos

Aretxagazeta

1995eko abenduak 21 - 3. orr.



Urtarrilaren 13an Takolo, Pirrux eta Porrotx pailasoekin eta Atzeratuen aldeko jaiadiatz egingo da Zaraia zinemaren inaugurazio ofiziala



Urtarrilaren 13an egingo da Zaraia zinemaren inaugurazio ofiziala

Urtarrilaren 13an, Zaraia zinemaren inaugurazio ofiziala egingo da eta egun horretan, Takolo, Pirrux eta Porrotx pailasoak izango dira bertan arratsaldeko 5etan. Sarrerak, aurrez kultur etxean, ludotekan edo kiroletxean eros daitezke 300 pezetatan edo bestela takilan 500 pezetatan.

Gaueko 9,30etan atzeratuen aldeko jaialdia egingo da.

Jaialdian, ikuskizun desberdinak izango dira, "Sonora Cerrajera" taldea arituko da Blues doinua jotzen. Honez gain Aretxaba-

letako gaztetxoan akordeoi orkestrak ere bere emanaldia egingo du.

Txiste lehiaketa

Aurtengo atzeratuen aldeko jaialdirako txiste lehiaketa antolatu du Aratz, Aretxabaletako atzeratuen aldeko batzordeak. 8 urtetatik 14 urte bitarteko gazteek parte hartu dezakete. Bi talde egingo dira, alde batetik, 8tik 11 urtera bitartekoekin eta bestea, 12tik 14 urtetara bitartekoekin.

Partaideek banaka kontatuko dituzte txis-

teak, ateraldi bakoitzean bi txiste; bata norberak gura duena eta aukeratutako gaiaren ingurukoa bestea. Hiru erronda egingo dira guztira eta bakoitzean epaimahaiak sailkatu direnen zerrenda esango du.

Sarien artean, Anoetara Erreala ikusten joateko sarrerak eta Taugresa ikusten joateko sarrerak, e.a. daude.

Apuntatzeko kultur etxera jo behar da edo eta 79 01 05 telefonora deitu, urtarrilaren 6a baino lehenago. Animatu eta ez gelditu atzera begira.

Olentzero egunean kantuan
Ortzadar Atsedean taldeak kantuan eta eskean joateko gonbidapena egiten du herritar guztiontzat abenduaren 24rako. Batzen denarekin bazkaria egingo da. Baserritar jantzita joatea eskatzen da. Joan gura izan ezkererako goizeko 9retan plazan agertu besterik ez dago. Animatu zaitezte

Coprecin gerente aldaketa
Juan Mari Uzkudun Copreciko gerenteak utzi egin du Copreciko gerente kargua eta M.C.C.ko bizeprezidentzia bat hartu du. Hemendik aurrera bera izango da automozio konponenteen saileko arduraduna. Bere lekua Joxemi Arregik beteko du Coprecin.

Ederlanen euskera batzordea sortu
Enpresa munduan euskeraren indarra ere gero eta haundiagoa da. Oraintxu, Ederlanen sortu barri da euskera batzordea. Enpresa barruan euskeraren erabilera bultzatzea du helburutzat. Euskera alorrean horrelako pausuak ematea garrantzitsua da. Zorionak gure partetik.

Berrikuntzak



MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparraginre, 4 Tfnoa.79 21 24

ARETXABALETAKO INDUSTRIALDEA "ARINSA"

Basabe Poligonoa "EO-10"

Telefona: 79 62 80

ARETXABALETA (GIPUZKOA)

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea

Tfnoa: 79 01 28

18

KELER

FELIX ARRESE

Edari Banatzailea



Industrialdean

Tfnoa: 79 60 65

Amaia-Berri, S.L

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor

Teknologia

Otalora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 **ARETXABALETA**



Mankomunitateak lanerako trebetzeko zazpi ikastaro jarriko ditu martxan

Deba Garaiko Mankomunitateak, lan mundurako trebatu asmoz 7 ikastaro jarriko ditu martxan, hoiien artean: Mig-Mag-Tig soldadura; ekipamenduen mantentimendua; informatika teknikoak; komunikazio kudeaketa eta datu baseetarako atzipena; etxeko lixaketa; etxeko jantzien jostintza eta iturgintza.

Ikastaroetan partehartzeko Deba Garaiko herriren baten erroldatua egotea, gutxienez 18 urte izatea, langabezian egon eta INEMen izena emanda egotea beharrezkoa da.

Ikastaro bakoitzeko 15 ikasle

hartuko dira, 105 ikasle guztira. Horretarako proba teorikoak, praktikoak eta banakako elkarrizketa egingo dira. Ikastaroa dohain da baina ikasle bakoitzak 10.000 pezetatako matrikula ordaindu beharko du; ikastaro bukaeran berreskuragarria izan daitekeena, parte hartze egokia izan ezker.

Apuntatzeko epea abenduaren 22an bukatuko da, eta apuntatu gura izan ezker Deba Garaiko edozein udaletxetan egin daiteke.

Selekzioa errege aurreko astean egingo da eta urtarrilaren 8tik aurrera hasiko dira ikastaroak.

Elkarteen arteko Mus txapelketa jokatzeko ari da egun hauetan.

Elkarte bakoitzetik bi pareja pasatuko dira aurrera. Dagoeneko elkarte batzuk bukatu dute lehen fasea beste batzuk oraindik ez.

Ezkerreko argazkian Uratz alde elkarteko jokalariek agertzen dira. Irabazleak Fermin Alcalde eta Agustin Morales dira, bigarrenak, Iñaki Arana eta Rodrigo Fernandez.

Bi pareja hauek beste elkarteekin jokatu dute orain. Hirugarrenak, Alfredo Meabe eta Floren Iruzubieta eta laugarrenak Txomin Galdos eta Justo Gruceta izan dira.



Bainu-etxeko programetan apuntatzeko epea zabalik

65 urtetik gorako jubilatuek eta 60 urtetik gorako pentsiodunentzat, INSERSOK antolatutako bainu-etxetako programetan apuntatzeko epea zabalik dago. Lehenengo hiruhilabeteko txandarako epea urtarrilaren 16an bukatuko da. NAN-aren kopia eta mediku txostena dira eskatzen diren agiriak. Eskaera orriak udaletxeko gizarte zerbitzuetako bulegoan eskatu behar dira.

Antzerki eta graffiti ikastaroa

Loramendi Elkartek antzerki tailerra antolatu du. Urtarrilaren 2, 3, 4 eta 5ean izango da eta Kuku-biltxo taldeak emango du. 500 pezeta ordaindu beharko da. Adin guztietako jendeak hartu dezake parte baina hori bai plazak mugatuak dira eta apuntatu gura duzuenok azkar ibili. Apuntatzeko Loramendiko lokalera jo. Tailer honez gain, graffiti ikastaroa ere antolatu dute Loramendiko Soloik Solo taldekoek, Abenduaren 26tik 29ra bitartean egingo da eta ordaina 500 pezetatakoa da. Apuntatzeko jo Loramendi Elkarteko lokalera.

Liburu azoka

Datorren abenduaren 22, 23, eta 24an liburu eta disken azoka jarriko da Loramendiko lokalean. Liburu guztiek % 15eko beharapena izango dute eta Otiak 6 urtetara bitarteko umeentzako beharapen bereziak egingo dira.

BEIRALAN



KRISTALDEGIA
Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

OSKAR
GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABAleta

MATIKUA
Taberna

Aozaratz auzoa
☎ 79 16 68
ARETXABAleta



MAPFRE

Aseguroak
Errekararren, 3
Tfnoa: 77 11 76



Ikastetxe eta eskoletan gabon giroa nagusi



Aurtengo urtean, Santa Rita ikastetxeko haurrak Angolako umeen Olentzero izango dira. Gabon asteko ekintzen artean, haurren solidaritatezko jarrerak landu asmoz "Gabonak denontzat" lemapean, Esnearen kanpaina antolatu dute. Horrela jasotzen duten esne guztia Afrikako Angolako hurrei bidaliko diete otsaila aldera. Kanpaina hau Gipuzkoako beste ikastetxe batzuekin batera egiten da, Elizbarrutiko Misio Idazkaritzaren babespean.

Beste gabonetako ekintzen artean, "laguntza eman eta laguntza jasoko duzu" montaje audiobisuala izango dute, 5 urtetako hurrek "gabonetako goxoki tailerra" egingo dute, ikastolaren apainketa, gabon jaialdia eta gabon eguna. Gabon egunean, gabon kantak kantatuko dituzte kaleetan barrena akordeoilari talde baten laguntzarekin.

"Berdintasunerako heziketa desberdintasunean" lemapean ospatu zuten Kurtzebarri- eskolan giza baloreen astea. Ekintza desberdinen artean aipatzekoa da abenduaren 15ean kanpoko pertonekin izandako solasaldiak, Cheikk Dieng senegaldarrarekin, O.N.C.Eko Amaia Zalakainekin, e.a.

SAIATU elkarteko eliteko kirolariek ikuskizun polita eskaini zuten.

Argazkian: SAIATU elkarteko Jose Pedroso txirrindularia.




LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE

TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

Atxabaltarrek maila oso ona erakutsi zuten Arrasateko Akordeoi lehiaketan



Azken lau urte hauetan, Luis Mari Elkorobarrutia eta Juan Jose Orobengoaren ikasleek maila ona erakutsi dute Arrasateko Akordeoi lehiaketan. Arrasatekoa, Espainia mailan egiten den akordeoi txapelketa garrantzitsua da. Aurten abenduaren 6tik 8ra ospatu zen eta 25 lagunek parte hartu zuten Aretxabaletatik. Banaka ere oso ondo moldatzen direla garbi utzi zuten. Ikusi besterik ez dago lehiaketan lortu dituzten sariak. Ez dute kantitatea bakarrik erakutsi, kalitatea ere bai. Luis Mari Elkorobarrutia eta Juan Jose Orobengoa akordeoi munduan egiten ari diren lana eta ikasleen dedikazio orduak benetako fruituak eman dituzte lehiaketa honetan. Horra hor irabazi dituzten sariak:

Gipuzkoako IV. festibalean:

Gaztetxoetan:

- Urrezkoa: Nerea Trigo, Nere Uribetxebarria, Leire Lozano, Nagore Sasiain, Ibai Akixu eta Oier Bernal.

- Zilarrezko saria: Amaia

Gorostiza, Alex Azkargorta, Maialen Miranda eta Xabier Bidegain.

• A kategoria:

- Urrezko saria: Iurre Olaizola.

- Zilarrezko saria: Idoia Zillaurren.

• **Bikoteetan**, 27 urtetik beherakoetan (bikoteen adina batuta):

- Urrezko saria: Larraitz Antxia eta Nerea Arrese; Ekaitz Oianguren eta Aiora Filarmendi; Aitziber Kintanila eta Lorea Lasagabaster.

- Zilarrezko saria: Lorea Salaberria eta Ainara Jorge.

• **Bikoteetan**, baina 27 urtetik gorakoetan (bikoteen adina batuta):

- Urrezko saria: Naiara Akixu eta Esti Kruzeta.

XVI. zertamenean:

Zertamenean, infantil kategorian bakarrik parte hartu zuten atxabaltarrek, (10etik 13 urtera). Aipatzekoa da **Arantzazu Arietaleanizbeaskoaren** lana, zertamenean aurkezten zen lehen aldia zen eta 3. postua eskuratu zuen. Beste bi sariak:

4. saria: Ainara Jorge

5. saria: Oihana Arejolaleibar

Hau da hau zerrenda, zoriontzeko moduan daude denak. Esan moduan kantitatea eta kalitatea erakutsi dute herriko akordeoilari gazte hauek. Aurrerantzean ere gogor jarraitu dezatela.

Arientzako eliza barriturik

Arientzako elizako konponketa obrak amaitu dituzte dagoeneko. 9 milioi kostatu diren obretarako, diputazioak 3 milioi, obispadoak 2,5 milioi, Aretxabaletako udalak milioi bat eta auzokoen dirulanguntzak 740.000 pezeta izan dira. Gai-nontzekoa prestamu batez ordaintzea lortu da. Datorren abenduaren 24an eguerdiko ordu letan elizkizuna egingo da Arientzako elizan.

Zabor bilketaren inguruko abisua

Udaletxeak jakinarazi duenez datozen abenduaren 24 eta 31an, zabor bilketa ohiko ordua baino lehenago egingo da, arratsaldeko ordu 2etan hain zuzen ere. Horregatik, zabor poltsak ordu letatik ordu 2etara bitartean ateratzea eskatzen da. Bestela zaborra kaleetan geratuko da bildu barik.

Ludotekan ere gabonak

Ludoteka abenduaren 22, 23 eta 27an itxita egongo da. Baina beste egunetan, gabonak bada-tozela eta, ludoteka ere ekintza bereziz beteta egongo da. Abenduaren 26an gabonekin zer ikusia duten horma irudiak egingo dira ludoteka apaintzeko. 28an plastilinzako irudiak. 29an gatz poteak, 8tik 12 urtera arteko haurrekin baina noski haur bakoitzak bere potea eraman beharko du. 30ean, 4tik 7 urtera bitarteko haurrek txontxongiloekin ari-tzeko aukera izango dute. Urtarrilaren 2tik 5era ludoteka normal zabalduko da eta adin bakoitzak bere egunak errespetatuko ditu. Egun hauetan ludoteka 11etatik ordu letara eta 4retatik 6retara zabalduko da. Informazio gehiago gura izan ezker, ludotekara edo Lora-mendiko lokalera jo edo eta bestela deitu 77 09 07 telefonora.



Corazón de Encina talde arrasatearrak joan den abenduaren 17an antolatutako "Migas Extremeñas" egunean ekitaldi polita eskaini zuten herriko plazan; Extremadurako dantza eta kantuekin saio txukuna. Bertan bildutako guztiek Extremadurako produktuen dastaketa egiteko aukera ere izan zuten.



San Simón eta San Juda, joan zen uda eta negua heldu da; ez ordea guztion burutan dagoen negu zuri klasikoa. Izan ere, duela urte gutxi Maritxutarako elurra ikustea ohikoa bazen, aurten konstituzio egunerarte Kurtzebarrik ez du bere mamu-soinekoa jantzi.

Hala eta guztiz ere, bizidun bakoitzak bere ziklo propioa du eta aurten ere urteroko bidetara ekin dio. Horrela, zuhaitzek hostoak galdu dituzte, esate baterako haritzek (*Quercus robur*) eta pagoek (*Fagus Sylvatica*). Bestalde txori migratzaileek, Inersokoak bailiran, leku epelagoetara egin dute ihes, beste askoren artean lertxun hauskarak (*Ardea cinerea*), amiamokoak (*Ciconia ciconia*) eta enarak (*Hirunda rustica*). Azkenik ugaztun ugari lozorro sakonean murgildu da, adibidez kirikinoa (*Erinaceus europaeus*).

Olentzero

Era berean, kaleak argi alu horietaz bete diren bezala, Olentzero aurten ere Kurtzebarria igo eta bertatik Deba Garai osoa ikusi ondoren Aretxabaletara jeitsiko da umeei opariak ekartzera. Dena dela, oraingoan gameboy, skalextrik eta ikatzez gain hiru fardel haundi dakarzkigu Euskal Instituzioen kortesiaz:

Alde batetik **Abiadura Haundiko Trena** daukagu. Aretxabaletako lurretatik pasatzen ez bada

ETXEEKO PEPLTASUNETIK


ere ziur egon bere kalteek guregan eragina izango dutela. Bigarren fardelean **Urbina-Maltzaga** Autopista aurkituko dugu, hau bai erokeria!!! Eta hirugarren paketea **Aizkorriko Parke Naturala** dator. Bertan Kurtzebarri osteko lurrak sartzen direnez atxabaltarron interesa piztu duen gaia da. Hurrengo ARETXAGAZETA batean aztertuko dugu proiektu hau.

Negua oraintxe hasi da. Bizitza lo dago. Hotzak eta gripeak jendea menperatu du. Bizitzaren pausaldi hau dugu momentu egokia ekologiarekiko gure jokaeraz hausnartu eta erreflexionatzeko. Egiten ez badugu gure planeta hau pikutara joango da eta berarekin Euskal Herria eta Aretxabaleta. Hainbeste dira arazoak: Kutsadura, Animaliekiko errespetu eza, Landaretzaren deuseztapena, eraikuntza mostruosoak, lurrak ematen digun baliabideen gehiegizko hustiapena.

Ea ba datorren urtea hobea izaten dugun. Jendeak ekologiarekiko jarrera egokiagoa hartzen duen, guztiok LANA aurkitzen dugun eta Orioko *San Nikolas* traineruak 27. aldiz irabazten duen Kontxako estropada.

URTE BERRI ON
GUZTIOI!!!

Mikel Arroiabe



LOGOPEDIA
ZENTRUA
ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK


HIZKETA ARAZOAK

AHOTS ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kanto, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

T
X
i
L
A
R
R
A



ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA



FELIX
PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak
Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33
Etxekoa: 79 42 56

**AITZIBER
NIÑO**
Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

Maritxu
Mertzeria
Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

LASA AGUILERA
Aholkularitza
Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

ARGAZKI
UrKiola
Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA



• Antonio Zuazua •

Olentzeroren gurdi gidaria

Antonio Zuazua, Egileor baserrikoa da. 20 urtetik gora egin ditu Olentzero gurdian garraiatzen. Olentzeroren taxista izan da, mendian hartu eta herriko kaleak goitik behera zeharkatu dituzte. Aurtengo urterako ere, dena prest du Antoniok, behiak, gurdia, uztarria, ardi larruzko estalkia, behien arrantxoak eta zaldi buztanaz eginiko soka.

• 20 urtetik gora Olentzeroren gurdi gidari izaten daramatzazu, ze oroitzapen duzu hasierako urte haietaz?

Hasiera batetan ALKAR arduratzen zen Olentzeroren inguruko guztia antolatzeaz. Jaiotza Lankide Aurrezkiaren aurrean jartzen zen, benetako behiaz eta astoaz, orduan gurdia ezin izaten zen plazara igo eta. ALKARekoek neuri esan zidaten gurdian ekartzeko eta nik gustora egin nuen lan hura. Gurdian ekarri nuen lehen Olentzero Izurietako Alberto Etxebarria izan zen.

• Eta zure aurretik zelan etortzen zen Olentzero?

Ni hasi aurretik Olentzero

astoan jeisten zen kalera. Don Luis Agirre apaizak, erreteriarra berau, gurdia ohitura ekarri zuen.

• Gustora aritu zara lan honetan?

Bai, umeak pozik ikusten ditut eta horrek aurretik egindako lana arindu egiten du. Gainera zorte ona izan dugu, urte bat bera ere ez dugu Olentzero gurdian ekarri gabe utzi, edurrik behintzat ez du egin orain artean.

• Zein desberdintasun topatzen duzu ordutik ona?

Orain lehen baino jende gehiago egoten da, eta Olentzerok indar

haundiagoa hartu duela iruditzen zait. Hori bai, lehen ardo botaz etortzen zen eta orain botarik ez du ekartzen Olentzerok. Opari moduan arrautzak eta oilaskoak eramaten zizkion Jesusi. Orain ohitura hauek galtuta daude.

• Behiak ez dira horrenbeste jende ikusita beldurtzen?

Ez, jendeak ez ditu beldurtzen baina beti zaintzen egon behar duzu, edozein unetan beldurto daitezke eta. Horregatik dena bukatu eta etxera bueltatzen naizenean orduantxe gustora eta lasai gelditzen naiz. Gure behiak, bide bazterrean bizi garenez, jendea, kotxeak, e.a, ikusten ohituta daude.

• Aurtengo aterako dituzun behiak lehenago ere ibilitakoak dira?

Bai, zaharrena 10 urtetan ibilitakoa da. Bestea gazteagoa da eta iaz ikasitakoa. Zaharrenak Linda du izena eta gazteak barrez, Txata.

• Eta aurrerantzean, Olentzeroren gurdi gidaria izaten jarraitzeko asmorik bai?

Ahal dudan artean eta deitzen badidate behintzat gustatuko litzaidake. Baina nire ostean, nire inguruko artean jarraipenik ez dut ikusten.



Antonio Zuazua Egileor baserrian

AMETS TABERNA

Iparagirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

INDUSTRIALDEA MEDIKU-ZENTROA

Luis Orruño
Medikua
Zaraia
Masaiak eta osteopatia

Industrialdea
Pabelloi F-O b
79 06 82
ARETXABALETA

Artano Taberna

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

Hiru urte pasatu dira, bosniar errefuxiatuak Eskoriatzara heldu zirenetik. 1992. urteko abenduaren 7a zen. Ordutik, 1994. urteko abuzturarte San Viatorreko etxean egon dira guztiak. Orain bakoitzak bere etxea dauka. Sei familia dira eta 21 bosniar danera. Hauetatik 14 Gorazdekoak, 5 Sarajevokoak eta 2 Mostarrekoak.

Hasiera batean, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzagako udalen laguntza izan zuten, orain ordean euren kabuz aurrera ateratzea lortu dute. Famili bakoitzean lanean dagoen norbait dago gutxienez, eta poliki-poliki gure ingurura integratzen doaz.

Umeak oso ondo integratu dira, batzuk bai gazteleraz eta baita euskeraz ere oso ondo berba egiten dute, nagusiak barrez, batzuk beste batzuk baino hobeto integratu dira.

Abenduaren 14an, Bosnia, Kroazia eta Serviako lehendakariak Jugoslavia ohia osorako bake akordioa sinatu zuten Parisen. Orain ikusi egin beharko da papelean sinatutakoa errealitatean betetzen den ala ez, betetzea ez da erraza izango eta.

Pake hitzarmena sinatu barri dutela eta, hemen dauden bosniarren eritzia eta egoeraren berri jakin guran eurengana jo dugu. Famili bakar batekin egotea besterik ez dugu lortu. Hauek, Satko, aita, Nada, ama, eta euren semeak Feda eta Damir dira.



Eskoriatzara dauden bosnioarrak Burgoseko katedralaren ondoan.
Argazkiak: Joxebi Ramos

• Hiru urte pasatu dira ona etorri zirenetik. Zelakoa izan da zuen integrazioa Euskal Herrian eta bereziki Eskoriatzan?

- Guk gure familiaren inguruan berba egiten dugu bakarrik. Egia esan, hiru urteak oso azkar pasatu zaizkigu. Denbora honetan lagun asko egin ditugu eta lana aurkitzea ere lortu dugu. Oso ondo gaude, gure seme biak, Feda eta Damir oso ondo integratu dira. Seme nagusienak, Damirek Almenen goi batxilergoko lehenengo kurtsoa ikasten du eta Feda barrez, Luis Eceizan ari da, 8. maila egiten.

• Lana aurkitzerako orduan oztopo asko izan duzue?

- Dagoen egoera ikusita guztiontzat da zaila lana aurkitzea, bai bertakoentzat eta baita guretzat ere. Senarrak eta biok lana aurkitzea lortu dugu, berak, jardineri moduan lan egiten du Makai enpresan eta nik etxe bat garbitzen dut. Egoerari aurre egitea lortu dugu eta ezin gara kexatu.

• Bosnian non egiten zenuten lan?

- Nire senarrak, Satkok, egur lantegi batean egiten zuten. Nik barrez, altzari denda bateko kontable lanak eramaten nituen.

• Hizkuntza ikasteko zelan moldatu zarete?

“Bosniara itzultzea pentsatzen hasita, badakigu ezingo ginakela lehen bizi ginen etxera eta lekura bueltatu”



- Etorri ginenean ezertxo ere ez genekien. Orain senarrak eta biok defenditzeko lain ikasi dugu. Nik hasieran klase batzuk hartu nituen, nire senarrak osterka kalean ikasi du. Hasiera batean, etorri ginenean gogorik ere ez genuen ikasteko, laster etxera bueltatuko ginela uste genuen eta. Baina azkenean hizkuntza ikastea beharrezkoa egin zaigu. Guk erdaraz bakarrik ikasi dugu, euskara askoz ere zailagoa da. Euskaraz berba batzuk baino ez dakizkigu, oso ondo, eskerrik asko, e.a. Seme txikiak euskeraz eta erderaz biak dakizki. Nagusienak erdaraz ondo baina euskeraz gutxiago.

• Bakea sinatu barri da, zelan hartu duzue notizia?

- Pozik hartu dugu barria eta seriotasunez hartutako erabakia dela uste dugu. Hala ta be, paper batean sinatutako bake akordioa da eta ikusi egin beharko da errealitatean pake hori errespetatzen den ala ez. Errespetatuko dela itxaroten dugu baina auskalo. Bosnian dauden gure familiaratekoak barrez, ez daude hain itxaropentsu. Elkarren arteko amorru asko dago eta guzti hau baretzeko denbora

behar da. Hala ta be, lehen baino hobeto badaude behintzat.

• Orain bakea sinatu barri denean, berriz itzultzeko asmorik baduzue?

- Bene benetan, bueltatzea gura dugu baina momentu honetan ezin dugu. Gure herria, serbiarregandik banatua dago eta horregatik Bosniara itzultzea pentsatzen badugu ere, ezin dugu gure lehengo herrira eta etxera itzuli. Itzultzen bagara, beste lekuren batera izan

“Bake akordioa sinatu den arren, bertako jendeak eta baita gure gure kezakak ditugu”

behar da. Momentuz ez dakigu itzuliko garen ala ez, zer gertatzen den itxoin egin behar dugu. Semeak oso pozik daude hemen eta nagusienak lehenengo ikasketak bukatu gura dituela esaten du eta hor arrazoi osoa dauka.

• Kanpoko laguntza nahikoa izan dela uste duzue?

- Ez, ez da nahikoa izan. Jende askok oraindik ez du janaririk eta ezta argirik ere. Lehen baino hobeto daude baina laguntza ez da nahikoa izan. Aurreko egun batean esaterako bertako familiarateko batekin berba egin genuen eta oraindik ez dute argirik eta ezta gasik ere.

• Euskal Herrian zehar ibili zarete. Zer iruditu zaizue, zer inpresio jaso duzue?

- Bai, buelta batzuk egin ditugu eta paisaia oso polita iruditu zaigu. Gu bizi garen lekua ere antzekoa da, gu ere mendiz inguratuta bizi gara.

Hiri moduan Gasteiz asko gustatu zait, Sarajevoren antz haundia du, Dato kalea, katedrala, bai oso antzekoak dira.

• Gabonak zelan ospatzen dituzue? Ohitura berezirik baduzue?


- Gu tradizioz musulmanak izan arren ez dugu praktikatzen. Europarrak gara eta zuen antzera ospatzen ditugu gabonak. Gabon gaba ez dugu ospatzen baina gabon zahar eguna bai. Egundia haundia da guretzat, zuhaitza jartzen dugu eta opariak egiten ditugu.

**Sretan Bozió!
Sretna Nova Godina!**

Honela zoriondu dizkigute gabonak.



Satko, Feda eta Nada, gurekin berba egin duen bosniar familia



Cho Oyu eta Lhotse-ko diapositiba emanaldia

Iñurrategi anaiek datorren abenduaren 23an, zapatua, Cho Oyu eta Lhotse-ko diapositiba emanaldia botako dute. Emanaldia Zaraia zineman izango da arratsaldeko 7,30etan. Zaraia zinemaren estrenaldia egingo da egun honetan. Oraingo honetan herritarrok ez dugu primiziarik izango, beste herri batzutan bota dute proiektzioa dagoeneko eta.



Errasti anaiek binakako eskuzko pelota txapelketan Gipuzkoako txapeldun

Carrete-De Santos eta Errasti anaiek Hernanin jokatu zuten Gipuzkoako txapelketan




Errasti anaiek momentu onean daudela erakutsi dute barriro ere. Joan den zapatuan, Hernanin senior mailako Gipuzkoako afizionatu txapelketa irabazi zuten.

Donostiako Altza auzoko Carrete-De Santos pelotarien aurka neurtu zituzten indarrak eta partidua oso orekatua izan zen. Tanteo oso berdintsua ikusi ahal izan zuten bertan bildutakoek eta hori dela eta partidu luze samarra. Hala ere, bukaerarte ondo gorde zituzten indarrak Ibon eta Unai

eta azkenean 22-18 nagusitu ziren Altzako pelotarien aurka.

Momentu honetan, bai Unai eta baita Ibon ere oso momentu onean aurkitzen dira. Hurrengo, Euskadiko txapelketari aurre egin beharko diote. Abenduaren 30ean hasiko dira jokatzen baina oraindik ez dakite zein pareja izango duten aurkaria. Gure partetik zorterik onena.


Datorren domekan, Mungiako txapelketa jokatuko dute Mungian bertan.



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30



EGUZKIGRAF
inprimategia



ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

IMANOL JANARI DENDA

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

LEIBAR ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA



Josean Uribetxebarria

Pelota txapelketako antolatzailea

Josean Uribetxebarriak zerbait egin eta lagun taldea bildu asmoz koadrilako pelota txapelketa antolatzea pentsatu zuen. Koadrilak emandako erantzun onaren ostean azaroan hasi ziren txapelketa jokatzeko, binakako eskuzko pelota txapelketa. Ordutik zapatuero jokatzeko partiduak kiroletxean eta arrakasta haundia izaten ari dira. Irabazleak zeintzuk diren jakiteko urtarrilerarte etxoin beharko dugu ordea.

• Zer dela eta antolatu zenuen pelota txapelketa?

- Koadrila oso gutxitan biltzen gara eta txapelketa motibazio apur bat ipini eta elkartzeko helburuaz antolatu nuen. Eta egia esan oso giro ona egoten da elkartzen garenean.

• Zenbat lagun zabiltzate?

- Koadrilako guztiok partehartzen dugu, 18k danera. Gainera, koadrilako bat Gasteizen bizi da, Luis Urzelai, eta zapatuero etortzen da partidua jokatzera.

• Arrakasta haundia izan du beraz zuk antolatutako pelota txapelketak?

- Bai, koadrilakoen artean behintzat ala izan da. Hasiara batean ez nuen uste horrelako arrakasta izango zuenik. Brometan hasi ginen, nire okurrentzia izan zen baina orain partiduak

seriotasunez jokatzeko dira.

• Eta zergatik eskuzko pelota txapelketa?

- Pelotan batzuk beste batzuk baino hobeto baina denok dakigu. Mutikotan ere askotan egiten genuen eta.

• Parejak zelan egin dituzue?

- Sortez atera ditugu parejak. Egia esan oso pareja egokiak atera dira eta horregatik partiduak oso orekatuak dira, gogo guztia jartzen da irabazteko.

• Zer da txapelketako politena?

- Ikusgarriena behintzat jendeak jartzen duen gogoia da eta horren ondorioz hemen ikusi diren zartadak ere galantak izan dira.

• Eta norbaitek ezin badu jokatu, orduan zer egiten duzue?

- Orduan Joseba Larrinagak

jokatzeko du bere orde. Zapatu baten bi partidua jokatzeko ere tokatu zitzaion.

• Irabazlearentzat zer egongo da jokoan?

- Trofeo, txapela, eta afaria. Txapelketako jokalariei aipagarrienak ere saria izango du.

“Koadrilako txapelketa izan arren, jokoan jartzen den seriotasuna eta gogoia haundia da”



Ezkerreko argazkian binakako eskuzko pelota txapelketa jokatzeko ari den koadrila. Guztira 9 pareja dira. Txapelketa urtarrilean bukatuko dute eta orduan jakingo dugu nortzuk izan diren irabazleak.

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK

DISEINUA

APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

Dorleta

Taberna

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

MIKELOS

Moda

Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA



Gabonak direla eta, umeez erregaluak eskatuta izango dituzte. Santa Rita ikastetxekoek ere idatzi ez baina paperrean margotu dituzte Olentzerori eskatu behar dizkioten erregaluak. Hoi en artean ikusi dezagun Garazi Azkoitia zer eskatu dion berak esaten duen moduan magia egiten duen Olentzerori.



Garazi Azkoitia
(5 urte)



• Gogoz zaude gabonak heltzeko?
Bai, amonari egunero galdetzen diot zenbat egun falta den gabonetarako.

• Zer da marrazkian margotu duzuna?
Marrazkian Olentzerori eskatu diodan erregalua margotu dut. Nenukoren maletina, eskaiolarekin irudiak egin eta margotzekoa eta nire panpinarentzako kuma.

• Eta Olentzerok guzti hori ekarriko dizula uste duzu?
Ez dakit.

• Ondo portatu zara?
Bai.

• Gabonetarako etxea apaindu duzu?
Bai, Belena eta zuhaitza jarri ditugu.

• Eta non utziko dizkizu Olentzerok erregaluak?
Zuhaitz ondoan utziko ditudan etxeko zapatiletan.

• Zer da gabonetatik gehien gustatzen zaizuna?
Azken egunean ikastetxean egiten dugun jaialdia. Gabonetako kantzak abesten ditugu eta beste makina bat gauza ere bai.

• Baina zuen erregaluetan bakarrik ez duzue pentsatu. Angolako umeekin ere pentsatu duzue, zer bidaliko diezue Angolako umeei?
Esnea bidaliko diegu. Gabon hauetan gu euren Olentzero izango gara.



IBARRA

ESTANKOA

Tabakoa eta ikasmateriala
Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

MEMESA S.L.

Industriaren alde
Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

**“HERRASTI”
AKEITA**



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

**ARBULO
HARATEGIA**

Santa Kurtz, 5
Tfnoa: 79 02 24
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak
Elektra-instalaketak
Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

MARI-MERKE

Jostailuak eta gabonetako gauzak (bolak, pinuak, e.a.)
Lezama Merkatal Zentrua
ARETXABALETA



**AZKENA
TABERNA**

Solohaundi, 8 Tfnoa: 79 74 57



Gure herrian mendizaletasun haundia egon da beti. Honen adierazgarri dira gaurregun gure herrian dauden bi mendi talde, Murrukixo eta Zaraia mendizale elkarteak. Orain domekero domekero antolatzen dira mendirako urteerak, baina garai batean be bazegoen mendira joateko afizioa. Horra hor, goiko argazkia, Muruko kurtze ondoan ateratakoa. Gizon, mutil eta mutiko koadrila majoa agertzen da bertan.

Argazkian ageri diren guztien izenak ez ditugu lortu, batzuk arrasatearrak be badira, baina hemen doakizue argazkiko batzuen izenak:

Poli Bengoa, Mariano Otero, Manolo Zubillaga, Javier Bengoa, Jose Mari Gorroño, Lorentxo Peña, Valentin Gastañaga, Manolo Intxauspe, Floren Agirre, Victor Jauregi, Juanito Urreta, Imanol Alberdi, Felix Ugalde, Luis Leanizbarrutia, Benito Rodrigez, Jose Mari Izagirre, Etxenausia (tanborreroa), Jose Mari Aginagalde, Angel Martinez, Fidel Antxia, Guridi, Jose Lizarralde, Santiago Uribesalde, Andres Otxoa, Jose Ignacio Bengoa, Julian Arkauz.

Urtebarri eguna laster helduko da eta batek baino gehiagok ohiturari jarraituz Murura igoko du.



Udalarentzat ere Olentzero



M.J. Aretxaga

Aurten, Olentzerok ez du ikatza baso ilunetik ekarriko, Gasteiztik baino. Olentzero **Juan Arregi** da. 86 urte bete barri dituen atxabaltar honek 200.000 pezeta eman dizkio Atxabaltako herriari. **Juan Antonio Rodriguez** alkatea joan zen beregana zoriontzera. Udalak oraindik ez du erabaki zetan gastatu diru hori. Nik neuk segituan konponduko nieke arazo txiki hori.

Oparia ez, baina saria jaso dute bi Atxabaltarrek, AEDko "Arrasate 95" lehiaketan. **Patxi Xabier Zubizarretak** argazki lehiaketaren multzo onenaren akzesita eta **Ainara Bilbaok** ipuin akzesita lortu du. Hau nirekin batera idazteko fitxatu beharko dut.

Gabon egun hauek jai egunak izaten dira gehienbat, aberats, ikasle eta irakasle direnentzat eta hori dela eta Mankomunitateko kirol zerbitzuak herrien arteko lehenengo olinpiadak antolatu ditu. Bertan Atxabaltako bi taldek hartuko dute parte, "**Las kagau**" eta "**Puskerra**". Joslastu ez dakit zelan jolastuko duten baina usaintzea behintzat ez litzaidake gustatuko.

Joan den alean herriko arbolak biluzik zeudela esaten nuen. Dirudienez baten batek hau entzun eta pena hartu du eta **toreroak** moduan argiekin josi dituzte. Aber aurten **udaletxeak** diru apur bat gastatzen duen eta beingoagatik arbola txukuna jartzen digun plazan, kolorezko zinta eta bonbiletan.

Koloretaz berba egiten hasi garenez, nik gabon zaharretarako kulero gorriak erosiak ditut dagoeneko. Eta jakin dudanez Aretxabaltako dendariei eskuetatik kentzen dizkiete. Beraz, ez itxoin azkenengo momenturarte eta erosi lehenbailehen, a ze sorpresa hartuko duen gau hortan mutilen batek.

Eta badakitzue, triste zaudetenok alaitu, urte barri, bizi barri.

ARETXAZOKA

- Norbaitek Aretxagazeta aldizkariaren 4., 5., 6. eta 13. zenbakidun aleak etxean eduki eta ez baditu behar, Aretxagazetako bulegora ekartzeari eskertuko genioke. (Kultur Etxean).

LANA

- Lurra lixatu, barnizatu (barniz ekologikoarekin) eta parketa, tarima jartzen ditut. Eskatu aurrekontua konpromezu gabe. Telefonoa: 71 50 72.

- 1.go mailatik 8. mailara arteko klase partikularrak emango nituzke. 79 24 19

- Emakume euskalduna behar da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Telefonoa: 79 63 88. Galdetu Begoñagatik. Arratsaldean deitu ezkerro hobe).

- Klase partikularrak emango nituzke, 2. REMerarte. Telefonoa: 79 27 14.

- 20 eta 33 urtetako bi neska, umeak edo hirugarren adinekoak zaintzeko prest daude. Telefonoa 79 96 24 da eta Txaro edo Begoñagatik galdetu.

ETXEBIZITZA

- 82 m²-ko lokala salgai dago. Hiru horma kale-runtza begira ditu eta ez du zutaberik. Lokala Loramendi kaleko 10ean dago. Telefonoa: 79 01 17

- Logela bat salgai dago. Bi ohe tolesgarri ditu, erropentzako bi armairu, eta espilodun apalategia. Armairuaren neurria, 3,46 metro zabaleran eta 2,4 metro altueran da. Harremanetarako telefonoa: 79 57 07 Pauligatik galdetu.

- Eskoriatzan jantzitako etxea alokatzen da. Telefonoa: 79 87 26.

- Pisu bat salgai dago Aretxabaltan, Solohaundi kalean, 25 zenbakian. Jantzita dago. Harremanetarako telefonoa: 79 46 25

- Pisu bat salgai dago Eskoriatzan. Berritua eta altzariz hornitua dago. Gauetz deitu ondorengo telefonora: 71 40 47.

- Euskeraz, ingelesez, gaztelerez ETB hizkuntzatat eta ipuin pertsonalizatuak idazten dira. Kontakua: Miguel 79 47 54



Olentzero

“Umeak zoriontsu ikustea da nire ilusio haundiena”



Olentzero Euskal Herriko pertsonaia mitikoa, abenduaren 24an menditik jaitsiko da umeen kartak hartu, irakurri eta umeek desiatzen duten erregalua ekartzeko. Ez du lan erraza izango baina badaezpada ere ondo portatu.

- **Non bizi zara Olentzero?**
Ugaztegi inguruan.
- **Eta zein da zure lanbidea?**
Ikazkina naiz.
- **Gogorra da ikazkin lana?**
Bai, urte gogorra pasatu ondoren desiatzen egoten naiz abenduaren 24a heltzeko eta kalera jeisteko.
- **Umeak asko gustatzen zaizkizu orduan?**
Bai, umeak poza eta ilusioa ematen didate.
- **Aurten ere behiek gidaturiko gurdian etorriko zara?**
Bai, jakina.
- **Ezkonduta zaude?**
Ez. Garai batean ezkontzeko nengoela maiteak alde egin zidan.
- **Eta orain bakarrik bizi zara?**
Bai, baserrian bakarrik bizi naiz, baina familiakoekin domekero elkartzten naiz.
- **Ondo portatuko da aurten Olentzero?**
Ni beti ondo portatzen naiz. Hori bai, gaizki portatzen diren umeekin...
- **Hoiei zer ekarriko diezu?**
Ikatza, neuk egindako ikatza.
- **Eskutitz asko jasotzen dituzu?**
Bai, gero eta gehiago.
- **Eta zer egiten du Olentzerok urteko edozein egunean?**
Mendian ikatza egiten ez banago, baserrian ere lan asko izaten da. Sua egin, bazkaria gertatu, baratza zaindu, e.a.
- **Eta zuk zeuk zer eskatuko diozu urte barriari?**
Horrenbeste gauza eskatuko niuke. Eskatzea librea da baina, badakizu denok nahiko genukeena, txarrera joan beharrean mundua hobera joatea.

Olentzero joan zaigu mendira lanera intentzioarekin ikatza egitera. Aditu duenian Jesus jaio dela laisterka etorri da berri ematera.

HORRA, HORRA, GURE OLENTZERO PIPA ORTZETAN DUELA ESERITA DAGO. KAPOIAK ERRE BAITU ARRAULTZATXOEKIN BIHAR MERIENDATZEKO BOTIL ARDUAKIN.

Laster arte Olentzero!!!



Beheko laukian Aretxabaletako zazpi auzoren izenak aurkitu beharko dituzu:

A	Z	A	T	E	K	L	U	D	L	A	G
R	N	E	S	P	R	N	K	T	R	O	K
I	A	B	C	E	J	O	F	H	I	B	T
N	Z	N	P	O	R	N	K	S	L	A	R
K	T	O	K	U	O	I	T	R	A	Z	O
T	A	Z	E	R	P	R	E	L	M	T	A
S	Z	T	O	N	Z	R	M	O	K	N	S
R	A	A	Z	T	R	A	L	A	G	E	R
A	R	T	E	O	N	L	A	R	T	I	O
N	K	B	Z	I	E	S	O	N	Z	R	K
T	A	R	O	Z	A	R	A	K	R	A	R
U	S	I	T	E	G	E	T	E	I	R	A

Gurutzegrama

Euskal Herrikoa	Mingots	Helioa	Errenkarin, Zilar	Ukapena
Epaitegiak	Oztopoak	Infusio mota	Atzizkia	Albaitarien lanbidea
Partiduaren hasiera			Sail	
Eguzkia			Har ezazu	
Bilduma balioetsua		Eragozpen		Atsegina hartu
Aulkia, easterako		Mahai-jokoa		
				49
Dago	Atzizkia		Junta-gailua	Zoro
Zuberoan, Jaun	500		Azerioak	
			Moduak	
Letra grekoa	Hegazti harrapari		Ordaingui	
Jatekoa	Apaiz			
		Osmioa		Idi, hitz elkarketan
Pizza, begietako zikin	Aberats bihurtu	Arazi		Garratz
	Betea		Joan den urtean Partiduaren atzizkia	Suari dariona
Sufrea	Daroak			
Nagusiki	Rutenioa			Bokala
				Zero
Urrea	Iparretarrak		Za zozar eta ni ...	

N	H	I	A	D
S	L	A	S	K
D	E	B	A	R
L	O	G	A	R
S	A	R	I	A
G	A	Z	I	A
K	I	T	A	T
L	E	L	O	B
L	E	G	E	A
A	I	K	O	I
O	K	I	Z	A
K	A	N	P	O
G	A	I	T	Z
U	N	E	A	Z

Aurreko aleko gurutzegramaren erantzuna



BERGARA



Abenduak 23

GABONETAKO KONTZERTUA

Bergarako Udal Musika Bandak, Bergarako Orfeoia eta Bergarako Orkestra Sinfonikoak eskainitako kontzertua. Udal Pilotalekuan izango da gaueko 10,30etan. Sarrera 500 pezeta.

Abenduak 29 eguakotxa

ANTZERKIA


Karraka antzerki taldeak "Pecata Minuta" obraren antzezlan eskainiko du. Novedades Aretolan izango da gaueko 10,30etan.

Abenduak 22-urtarrilak 1

BERGARAKO MARGOLARIEN ERAKUSKETA

Herriko margolariek beren azken lanak ikusgai jarriko dituzte kultura etxean.

ARRASATE



Abenduak 22

SANTAMASAK

Abenduak 23 astelehena

TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX


Amaia Antzokian Takolo, Pirrutex eta Porrotx pailazoak. Bi saio egingo dituzte bata, 5etan eta 7retan bestea.

Abenduak 21etik 24ra

LIBURU ETA DISKA AZOKA

Liburu eta diska azoka egongo da Zebero Altubenean.

ESKORIAITZA



Abenduak 23

FUTBITO TXAPELKETA

Itzaropena Elkarrekin antolatuta futbito txapelketa. Goizeko 9retatik ordu 2etara izango dira partidua polikiroldegian.

Abenduak 24 domeka

GABON EGUNA

Abenduak 27, 28

HAURREN PARKEA

Goizeko 11etatik ordu 1etara eta arratsaldeko 4retatik 7retara. Eskoriatzako frontoian izango da eta sarrera dohain.

Abenduak 29 eguakotxa

KONTZERTUA

Gorosarri Abesbatzak eta Madrilgo kamara orkestrak gabonetako kontzertua eskeiniko dute, gaueko 10etan Eskoriatzako parrokan.

Abenduak 31 domeka

SASKIBALOIKO HIRUKOTEEN TXAPELKETA

Eskoriatzako kirol elkarteak antolatuta, arratsaldeko 4retan saskibaloiko hiru puntuko saskiratze txapelketa izango da polikiroldegian.

Abenduak 29, 30 ...

UMEENTZAKO BIDEO PELIKULAK

Abenduaren 29, 30ean eta urtarrilaren 5 eta 6an, **Ihortziri taldeak** antolatuta Eskoriatzako kultur etxean **umeentzako bideo pelikulak** egongo dira. Ordua arratsaldeko 5etan. Sarrera dohain da.

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

*Okindegia - Gazategia
Panaderia - Pasteleria*

Aretxabaleta

Militaria 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Crador Propio

MENDIOLA ERRETEGIA

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita

Tfnoa: 71 43 45

ESKORIAITZA



BEHARREZKO TELEFONOAK

Abenduak 22 eguakotxa

CAMP DANTZALDIA

Ortzadar Atsedeen Taldeak antolatuta **LUDI BERRI** taldearekin Camp dantzaldia. Gaueko 10etan Kurtzebarri eskolako aretoan.

Abenduak 22, 23, 24

LIBURU AZOKA

Loramendi Elkarateak antolatuta, abenduaren 22, 23 eta 24an **liburu azoka** egongo da Loramendiko lokalean.

Abenduak 23 zapatua

UMEENTZAKO PARKEA

Aretxabaletako Udalak antolatuta, goizeko 11etatik eguerdiko ordu batetara bitartean eta arratsalde 5etatik 7etara bitartean, **umeentzako parkea** egongo da Iturrigorri frontoian.

CHO OYU ETA LHOTSEko DIAPOSITIBA PROIEKZIOA

Inurrategi anaien eskutik **Cho Oyu eta Lhotse-ko** diapositiba emanaldia Zaraia zineman arratsaldeko 7,30etan.

Abenduak 24 domeka

OLENTZERO

Arratsaldeko 6,30etan urtengo du Kiroletxetik eta Herriko plazaraino joango da.

Abenduak 25 astelehena

ARETXABALETAKO AKORDEOI ORKESTRAREN EMANALDIA

Goizean herriko kaleak zeharkatuko ditu.

Abenduak 27 eguaztena

AUSKALO TALDEA

Tailer desberdinak ikusgai izango dira plazan. **Haien artean, txapen tailerra, zorion txartelen tailerra eta makilai tailerra.** Ordua: arratsaldeko 3retatik 7rak artean.

Abenduak 29 eguakotxa

ÑAKE TALDEAREN ANTZEZIANA

Gaueko 10etan **Ñake** taldearen antzezlan. **Obraren izena: "Pocos y mal avenidos"**. Terraza zerbitzuaz. Kurtzebarriko eskolako aretoan.

Abenduak 31 domeka

BIZAR ZURI

Arratsaldeko 6,30etan kiroletxetik urtengo du eta Santa Kurtz kaleraino jeitsiz.

Urtarrilak 2 martizena

BILBOKO PINERA TXANGOIA

Informazio gehiagorako deitu **Ortzadar Atsedeen Taldera.** Tfnoa: 79 01 84.

Urtarrilak 5 eguakotxa

ERREGE KABALGATA

Arratsaldeko 6,30etan kiroletxetik urtenda gure herriko kaleak zeharkatuko ditu Santa Kurtz kaleraino.

Urtarrilak 11 eguena

TXONTXONGILO EMANALDIA

Kurtzebarri eskolako aretoan izango da goizeko 10etan.

Urtarrilak 13 zapatua

TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX

Arratsaldeko 5etan Zaraia zineman. Sarrerek 300 pezetan salgai kultur etxean, Ludotekan eta kiroletxean.

Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 79 10 52
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkartea 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murrukixo M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99
- Ludoteka 79 05 81
- Musika Eskola 79 36 50
- Pausoka 77 03 77
- Ortzadar 79 01 84
- Aretxagazeta 79 01 05

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- SOS Deiak 088

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28


ARETXABALETA

ITURGINTZA




Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87


IÑURRATEGI ANAIAK eta MUGARRI, ezinezkoa erraza egiteko gaitasuna



K-2 (94-06-24)



Cho Oyu (95-09-11)



Lhotse (95-09-27)



Gaur egun, mendizaleen artean Iñurrategi anaiak ditugu garaile. Baina Todoterrenoetan garaile dena Ford-en Maverick berria da. Bere indarra edozein gailur gainditzeko gai da eta bidean edozein autok bezala erantzuten du.

Maverick eta Iñurrategi anaiak, natura menperatzeko jaioak!

M MUGARRI